




anestesia pediatrikoa



Osakidetza

DONOSTIALDEA ESI
OSI DONOSTIALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

ANESTESIA PEDIATRIKOA

Orrialde hauetan, zure seme edo alabaren anestesia ahalik eta baldintzarik onenetan egiteko beharrezkoa den informazioa eta zenbait aholku baliagarri eskainiko dizkizugu.

Pazientea ospitalera iristen denetik etxera itzuli arte, lantalde espezializatu batek lantzen du zaintza-plana, prozesu osoan zehar ahalik eta erosotasun eta segurtasun handiena ziurtatzeko.

ELKARRIZKETA BAT EGITEN DUGU ANESTESIOLOGIAKO ZERBITZUAREKIN, TELEFONOZ EDO AURREZ AURRE

Ekintza anestesiko orok, gaitasun handiz eginda ere, zenbait arrisku ditu. Egin beharreko galderek eta historia klinikoko datuen azterketak jardute-plana egokitzen lagunduko digute, aurreikus daitezkeen arriskuak saihesteko. Arrisku horiek zure haurraren osasun-egoeraren, adinaren eta ebakuntza motaren arabera dira.

Oso kasu bakanetan gerta daiteke aurreikusi ez den arriskuren bat agertzea. Gure ezagutza, esperientzia eta jarrera on guztia erabiliko dugu konplikazio horiei irtenbide bat emateko.

ZERGATIK ESKATZEN DUGU ANESTESIARAKO BAIMEN SINATUA?

Dokumentu horrek ekintza anestesiko bat zertan datzan irakurri eta ulertu duzula baieztatzen du. Sinadura horrek ez ditu medikuak beren erantzukizunetatik salbuesten. Dokumentua sinatzen ez baduzue, ezin dugu anestesiarik erabili, hil edo biziko larrialdi kasu batean beharrezkoa denean izan ezik.

ANESTESIA EMAN BAINO LEHEN, PRESTATU EGITEN DUGU ZURE HAURRA

Datuak eta egin beharreko ebakuntza zure umearentzat prestatutako zainketa-planari dagozkiola egiaztatzen dugu.

Bizi-konstanteak neurtzen ditugu, haren osasun-egoera ebakuntza egiteko egokia dela baieztatzeko.

Hainbat teknika erabiltzen ditugu zure haurraren estutasuna arintzeko. Besteak beste, ahotik edo sudurretik ematen dugu lasaigarri bat, efektu baregarria duena, eta larruazalean zabaltzen dugu pomada bat, efektu anestesikoduna.



ANESTESIA OROKORRAREN ERABILERA

Anestesia orokorra zure umea kontzientziarik gabe (lozorro astun batean bezala) utziko duen teknika bat da, kirurgia-ekintza minik gabe eta ahalik eta erosoan egiteko.

Bi modu daude anestesia orokorra hasteko: zain barneko perfusio baten bitartez edo aurpegi-maskara batetik gas anestesikoak arnastuta.


Zain barneko perfusioa kasu guztietan erabiliko da, hasiera-hasieratik edo haurra behin lokartuta dagoenean, anestesiatuta mantentzeko eta analgesiarako beharrezkoak diren botikak eman ahal izateko.

Zure haurrak arnasa hartzen jarrai dezan, anestesio-ologoak gailu bat jarriko dio ahoan edo trakean (laringe-maskara edo hodi endotrakeala).

GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK

Anestesiako teknikak oso seguruak dira. Konplikazio larriak oso bakanak dira. Konplikazioak honako hauek izan daitezke:

- Eztarriko molestiak.
- Afonia edo ahoko molestiak; egun gutxiren buruan berez arindu ohi dira.
- Hortzetako lesioak, batez ere mugitzen badira edo kaltetuta badaude. Kasu bakan batzuetan, ortodontzia lesionatzea gerta daiteke.
- Goragalea eta okadak.
- Loaren nahasmenduak, ebakuntza egin eta berehala.
- Nerbio-lesioen ondoriozko giharretako ahuleria; kasurik gehienetan, berez konpondu ohi dira.
- Urdaileko edukia biriketara igarotzeko aukera. Ondorio larriak ditu horrek. Hori dela eta, ezin garrantzitsuagoa da barauari buruzko gure jarraibideei kasu egitea.



- Oso kasu bakanetan, konplikazio larriak gerta daitezke (alergiak, hipertermia gaiztoa, biriketako geldialdia, bihotz-geldialdia). Gure zaintza, esperientzia eta ezagutza guztiak konplikazio bakan eta larri horiek ekiditea eta haiei irtenbideren bat bilatzea du xede.
- Bigarren mailako konplikazioak, zaintza handiagoa eta produktu bereziak hartu behar izateagatik jarri beharreko gailuen ondorioz sortu daitezkeenak. Gailu horien artean honako hauek daude: arterietako kateterrak, gernu-zundak, zunda nasogastrikoak, bena-bide zentralak, eta odola eta haren eratorriak.

ANESTESIA ERREGIONALAREN ERABILERA

Anestesiologoek zenbait egoeratan beharrezko gorputz-atalak lokartzen dituzte anestesiko lokalekin, blokeo neuroaxiala eginez orno-muinetik hurbil anestesia jarritz, edo blokeo periferikoa eginez, nerbio periferikoetatik hurbil anestesia jarritz.

Anestesiologoek ekografo bat erabiltzen dute kokapen zehatza ikusteko eta anestesiko lokala ematean erratzeko tarte txikiena uzteko. Era berean, batzuetan kateter bat erabiltzen dute anestesiko lokala behar den denboraz ematen jarraitu ahal izateko, ebakuntza ondoko mina kontrolatzeko.

Haurrengan, jadanik lo daudenean (anestesia orokorraren ondoren) egiten da gehienetan, sentsazio desatseginak ekiditeko.

ANESTESIA ERREGIONAL KONBINATUAREN XEDEA

Helburua ebakuntza ondoko mina gutxitzea eta kirurgia-prozesua egin bitartean anestesia orokorra arintzea da. Anestesiko lokalen eraginpeko aldean ez da minik sentitzen, erabat edo neurri batean.

GERTA LITEZKEEN KONPLIKAZIOAK

- Min iragankorra ziztada egin den puntuan.
- Buruko mina; atsedean hartuta desagertzen da.
- Gernu egiteko zailtasuna; berez konpondu ohi da.
- Gorputz-adarrak mugitzeko zailtasuna edo sentikortasun-galera. Ondorioz, zure umeak molestia-ren bat sentituko du agian. Berez konpondu ohi da, ordu batzuk pasata.
- Konplikazio larriak oso bakanak dira: konbultsioak, bihotz-geldialdia, paralisi iraunkorra edo sentikortasuna betiko galtzea.

ZAINTZA

Anestesiologoak bizi-funtzioak zaintzen ditu, horretarako egokia den monitorizazioa erabiliz: pultsua, presio arteriala, arnasa-maiztasuna, oxigeno-asetasuna eta tenperatura. Beharrezkoa balitz, funtzio horiei eusteko behar diren botikak erabiliko ditu.

ESNATZEA


Anestesiko guztien efektua pasatakoan, zure haurra poliki eta progresiboki esnatuko da. Esnatze-gela ize-neko gela batera eramango dute. Han, haren bizi-funtzio guztiak zaintzen jarraituko dugu, eta haurra eroso egoteko eta bizi-funtzioak kontrolpean edukitzeko beharrezkoak diren botikak emango dizkiogu.

Anestesiologoek erabakiko dute zein den unerik egokiena zuen umea gela arruntera eramateko. Kasu batzuetan, Zainketa Intentsiboen Unitatera eramango dute haurra, bere osasun-egoeragatik edo egin dionten kirurgia-ekintzagatik zaintza estuagoa egin ahal izateko.

Denbora-tarte horretan, kirurgiaren ardura izan duten medikuek ebakuntzaren gorabeheren berri emango dizute.

ETXERA ITZULTZEA

Zure haurrak konplikaziorik edo minik ez badu, talde medikoak alta-txostena osatuko du, eta bertan etxean berroneratzeko beharrezkoak diren gomendioak adieraziko dizkizute.



gomendio-orria

Anestesiologia Pediatrikoko Zerbitzuari ohartarazi (tel. 943 007 020) kasu hauetan:

- Haurrak sukarra badu (38 °C edo gehiago) edo interbentzio kirurgikoaren aurretiko egunetan infekzioaren susmorik badago.
- Prozedura anestesikoari edo gomendioei buruzko zalantzarik izanez gero.

Barauari buruzko gomendioak:

- Ezin du ezer ere jan operatu baino 6 ordu lehenagotik.
- Ur hutsa edan dezake (baina, ez beste ezer) operatu baino 2 ordu lehenagora arte.
- Urtebetetik beherako haurtxoek titia har dezakete operatu baino 4 ordu lehenagora arte, edo biberioia operatu baino 6 ordu lehenagora arte.

Garbitasun-gomendioak:

- Haurrak dutxatuta etorri behar du (bakarrik ur eta xaboiz).
- Ez eman kremarik, usain-kentzekoak, koloniak, etab.
- Kendu bitxiak eta azkazaletako esmaltea.
- Ez da beharrezkoa pijama eta garbitzeko tresnak ekartzea (zapatila batzuk, aldiz, ekartzea komeni da).

Ingresurako arauak:

- Ekarri osasun-txartela.
- Anestesiako baimen informatua sinatuta ekarri.
- Ekarri zure haurraren jostailu maiteenetako bat, edo zerbait entretenitu dadin.
- Haren ohiko medikazioa eta jangai bereziak (osasun-arazoren bategatik hartu behar baditu) ekarri.
- Ospitaleratuta dagoen bitartean, egon haurrarekin, anestesia eta bizi-konstanteak zaindu bitartean izan ezik (jende askorik ez etortzea aholkatzen dugu: bi pertsona gehienez).

